



HAL
open science

Hints of the literary aesthetics of Bilbao: 1950-2000

Aitor Ortiz de Pinedo

► **To cite this version:**

| Aitor Ortiz de Pinedo. Hints of the literary aesthetics of Bilbao: 1950-2000. 2025. halshs-04936680

HAL Id: halshs-04936680

<https://shs.hal.science/halshs-04936680v1>

Preprint submitted on 9 Feb 2025

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Copyright

Bilboko literatur estetika 1950-2000: apunteak

HINTS OF THE LITERARY AESTHETICS OF BILBAO 1950-2000

AITOR ORTIZ DE PINEDO (EGAN)

Bilboko literatur estetika 1950-2000: apunteak

Hints of the literary aesthetics of Bilbao: 1950-2000

Aitor Ortiz de Pinedo (Iker/EHU)

Laburpena

Orrialde hauetan literaturak euskaraz egin duen bidea Bilbon zirimarratuko dugu, batez ere, 36ko gerraren ostean, gaur egun arte, hau da, gutxi gorabehera XX. Mendearen bigarren zatian.

Abstract

In these pages we have the intention to display the evolution of Basque language literature in the second half of the XXth century.

Gako-hitzak: literatura, euskara, Bilbao, XX. Mendearen bigarren zatia

Key words: literature, Bilbao, 1950-2000, Basque language

1. Sarrera

Geure asmoa da, lan honetan azken mendeko estetika garrantzitsuak jasotzea, zehatzago esanda indarrean egon direnak: sintesi-historiko arina gura bada, baina aldi berean panoramiko.

Estetika definitzeko ahaleginean, estetika batzuk zaizkigu beste batzuk baino ezagunagoak-eta, horietako batzuk aipatuko ditugu lana kokatzeko: aszetika, mistika, erromantikoa, klasikoa, kostunbrismoa, errealismoa, naturalismoa, sinbolismoa abangardiak, futurismoa, neoklasizismoa, existentzialismoa, *nouveau roman*, gizarte-poesia...

Lexicón bilbaíno liburu baten izenburua da, autorea Emiliano Arriaga duena. Arriagak euskarazko kutsua duten hitz bilbotarrak jaso zituen, besteak beste. XIX. mendearen hasierara arte Zazpi kaleetan euskaraz egiten zen. Migel Unamunok aztertu zuen bilbotarren hizkera berezia haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenetan, eta Jon Juaristik ere gaiari ekin dio bereziki *El chimbo expiatorio* liburuan, autoreak ohikoa duen tonu polemikoan, izenburuari soilik erreparatuta nahikoa... Alegia, bilbotarra biktima gisa (Juaristi, 1999). Hori bai, ondo dokumentatua, eta interesgarria, onbera izateari utzi barik...

Emiliano Arriagak liburuan hitzen zerrenda ematen du, eta esanahi zehatza emateaz gain, hiriko ohitura batzuen berri ematen du: txakolindegia, txinboen txori-ehiza, pilota-jokoa, gizarte-konbentzioak, pertsonaia xelebreak, iturriaren ondoko gazte ibilera berdeak...

Emiliano, berez, jeltzalea zen, eta euskararekiko begi zolia eta amultsua du euskarazko hitzetarako, beste jatorriko hitzak ere jasotzen dituela, ijito-

hizkera, frantsesa, ingelesa... Oraintsu *El Gallo de Oro* argialetxeak inprentatu lexikoi hori, baina udalaren webgunean ere bada pdfa, Arriagaren beste argitalpen batzuekin batera. Adibidez, irakurle kuriosoak Txomin Barullo nor zen jakingo du haiek irakurrita, pertsonaia denen pozgarria umorea jartzen zuena elkarretaratzeetan, hau da, bigarren Txirrita bat, aldeak alde, Aste Nagusiko jaietako izen bereko konpartsaren aita ponte.

1900-1936 denbora tarteari gagozkiola, zilegi bekigu esatea Bilboko aberastasuna euskaldunen eskutara igaro zela, noizbait ingelesen kolonialismoari esker, hasiera batetik haiek ondo zekitelako teknikoki nola ustiatu industria gisa hemengo burdina-mehatz tradizionalak. Haien presentzia fisikoaren arrastoak ere badira oraindik ere: Ingelesen Landa edo *La campa de los ingleses* izeneko tokia bada, non *foot-ballean* egiten zuten, oraingo Guggenheimen alboan. Ingelesek burdina behar zuten beren lantegietarako eta Bizkaira jo zuten, besteak beste.

Bilbok loraldia izan zuen, orduan. Jakina da loraldiak langile migratzaileek emandako izerdiari zor diola asko eta beraien lan gogorrari, deblauki esanda: horrek azaldu egiten du langileen artean sozialismoa eta komunismoa errotzea. Gertakari bortitzak izan ziren, eta istilu odoltsuak. Facundo Perezagua (1860-1935) sindikalistak garai bat markatu zuen. Ezkerraldeko migratzaileak Espainiatik etorriak ziren gehienak, kopuru aldetik. Euskal nekazaria fenomeno beraren jasale zen, hau da, landa ingurua hustutzen ari zen industriaren onerako, eta alde egin beharra izan zuten, hala Bilbo aldera nola beherago penintsulan barrena. Euskaldun askok, ordea, Ameriketarako bidea hartzen zuten, artzain lanak egitera askotan.

2. Diktaturaren estetika: 1939-1975

2.1. Estetika neoklasikoa

Neoklasizismoa diktaduran. Estetika neoklasikoa, jakina denez, estetika erromantikoari kontrajartzen zaio. Joera apolineoaren erakusgarria, ilustratua, orekatua, Mediterraneoko itsasoarekin irudikatua. Estetika erromantikoa gehiago lotzen da Ozeano atlantikoarekin, Dionisio edo bako jainkoarekin. Tankera honetakoak ditugu gurean Azkoitiko zalduntxoak, alegia, *El borracho burlado* antzezlanean herritarrak gehiegizko edatearen kontra sustatu nahi ditu, hau da, ohiturak hezteko eginkizuna hartze izan du, Kasu honetan Peñafloredako Kontearen modura. Neoklasizismo euskalduna zer izan den ederto jakin daiteke Jose Antonio Uriarte apaiz bizkaitarraren lanak irakurrita (Kortazar eta Billelabeitia, 1987): bitxi bat benetakoa, liburuori.

36ko gerrak errepresio odoltsua eta herri-langile askoren depurazioa ekarri zituen. Adibidez, maisu-maistra ugari kargugabetu zituzten Errepublikako ideiak zabaltzeagatik, irakaskuntzak beti egiten duena, estatuaren ikusmoldea zabaltzea eta gizartea erreproduzitzea. Horietako batzuek ez zuten berreskuratuko lanpostua 1977an demokrazia berrezarri arte, eskuhartze politiko txikia izanagatik Errepublikako garaian: laneko bizitza guztia hondatua.

Gerra osteak, hala ere, Bilboko landa inguruaren loraldia ekarri zuen. Gosearen ondorioz, bilbotarrek asko estimatu zuten Txorierriko eta aldirietako

nekazal produkzioa; Espainia pobretua zegoen eta mugak itxiak zeuzkan, nazioarteak Francoren erregimena arbuaiatua, legez kontra sortua zen-eta.

Gerra osteko giro latzean, bai gura genituzke aipatu idazlan batzuk, marraztu dezagun panorama hura literatur eta didaktika arloko euskarazko argitalpenez...

Uztaro, Toma Agirre (1937): Eleberri hau Txomin Agirrerrenen tankerakoa da. Hor islatzen da gizartearen trajedia, modernizazioarena. Mundu tradizional fededuna aurrez aurre topatzen du udatiarren mundu berria. Talka gogorra da, eta bikote bat desegitearen ondorioz, andrea komentu batera doa, mundutik ihesi, gizarte berria ulertu ezinean babes bila (Ortiz de Pinedo, 2023). Idazlea bera, gerraren ostean Andaluziara aldatu zen, han erdarazko olerkiak ontzeari ema zitzaiola.

Espetxean, Luis Mitxelena eta beste batzuk: kartzela frankistan idazten zen aldizkari honetan gudua galdutakoek euren bizipenak eta jaidurak kontatu ohi zituzten. Lehen alea 1937an agertu zen, Santoñako El Duesoko espetxean.

Erregistro mailan badirudi garai hartan bertsolaritza ez zela horren arriskutsutzat jotzen, era batera ez zegoelako unibertsitatearekin lotuta. Orduko ikuspegia eta gaurkoa ez dira berak. *Tavira* aldizkaria Durangon argitaratzen zen (1959-1963). Aldizkari kultural honetan argitaratzen ziren Jose Etxeandiaren (1897-1976) lanak, euskaltzain urgazlea. Abade hau liburu gotorrak idatzia zen errepublikaren kontra. Hala ere, Luis Villasantek haren hileta-oharrean dioskun moduan, bertsolaritzari bideak ireki zizkion frankismoko garai hartan, euskararenganako zaletasuna txarto baino txartoago hartzen zutenean agintari irabazle berriek. Horrek erakusten du kasu askotan euskarazko munduaren inguruabarrak hainbat ñabarduraz hornituak ulertu behar direana, manikeismotik harago.

Iñaki Eizmendi, *Basarri*. Bertsolari honek bertsolaritza bide neoklasikotik bideratu zuen, aszetismoari keinu amultsua eginez, zabarkeriaren aitzakian, zeinetan murgilduta omen zebilen ordu hartara arte bertsolaria eta haren antzea, oro har. Sagardotegietatik atera eta duintasuna eman zion jendearen aurrerako. Andoni Egañaren maisua: zarauztarra, hura ere (Ortiz de Pinedo, 2011, 107-110. or.).

Alfonso Irigoien Bilboko aretoetan bertsolaritza bultzatzen jardun zuen, Euskaltzaindiaren Jagon sailean.

Xabier Amurizak bertsolaritza letren eremura ekarri zuen, berezkoa behar omen zena, ikasientzat ere moldatuta han eta hemengo bertsolaritza-eskolei atea irekita. Santutxukoa eta Muxikakoa izan dira bereziki ezagunak, Bilbo inguruan.

Kontuan izan Xabier Amurizaren ibilbidea Euskal Herriko txapeldun izan arte, Gogor apaiz disidenteen ekimenarekin hasi zela, eta Zamorako kartzelatik pasatu zela; antzeko bidea hartu zuten bere lagun abadegaiek azkenean bizitza zibila egin dutenak, askok euskal letretan arrastoa utzita: Josu Naberan...

Baina, nola bizi zen euskaldun bilbotarra, nolako elikadura linguistikoa izan zezakeen errepresio garbiaren garai hartan? 40 urteko diktadura ez da gutxi luzatzen eta Bilbon Don Klaudioaren mezak euskaraz, San Anton parrokian, heroikotasun puntu bat bazuten, miresmen sortzailea; izan ere, abade horrek ekin zion liturgia euskaraz ere eskaintzeari.

Beste alde batetik, baziren aldizkariak, *orriak* hobeto esateko etxeetan jasotzeko modukoak: *Goiz Argi*, geroago *Zer* aldizkaria, bizkaieraz... Oro har ez ziren euskara batuaren aldele sutsuak. Talde bat ere bada horien osteko Euskerazaintza izekoa bidea egiten jarraitzen duena, ildo historizista batetik, sarean dauden aldizkariak erreparatuta, gainerako argitalpenei bezala, eskegita dudenak, era berean. Baziren, bestalde, hiriko pisu batzuetan euskara erakusten zen talde multzo txikia: Xabier Peñaren metodoa erabiltzen zen (Peña, 1970), Oñatibiarena, etab. Arantzazuko egutegia orri orri aletzen zen etxeko sukaldean.

Garai haietan non zentsura atezuan zegoen, noiz euskaltzaleak bere askatasun egarria adierazteko “*Va pensiero*” operako kanta ezaguna baliatu behar zuten, Verdiren *Nabucco* operakoa, alegia, irtenbide segurua zen anekdota hutsean geratzea euskararen erabilera soziala. Bada bilbotar bat, Manu Ziarsolo, *Abeletxe*, horrelakoak atera dituen, ez anbiziosoegia, agian, bai sintomatikoa garai haiek hurbilagotik ezagutzeko: *Gazi-gazak* (1975). Bazekien Abeletxe zer zen tentuz ibili beharra, errepresioak erakutsita. Anekdota umoretsuek bidea ematen zioten hizkuntzari, arrisku larregi jasan behar izan gabe.

Francoren garaian izan zen ekimen harrigarri eta interesgarria, gure ustez. Carlos Santamaria matematikariak Donostian jardunaldi katolikoak bultzatu zituen pertsonalismoaren inguruan. Pertsonalismoa da Eusko Jaurlaritzako babesle frantsesek sarri besarkatu zuen filosofia: Jacques Maritain eta Raïssa haren andretik abiatuta, Mounier, Bernanosek atotsi zutena, ez oso urruna planteamendu kristau aurrerakoietatik. Euskal herrian Manex Erdozainzi Etxartek ere berarentzat egoki jo zuena, gure literaturaren esparruan. Hala ere, horrelako irtenbideek ezingo zitzaizkien nagusitu existentzialismoari, behintzat gizartean izan zuten nagusigoari dagokionez, nahiz eta orain gutxira arte Jaurlaritzaren lema Pertsona helburu izan den, oker ez bagaude Jaurlaritza Frantzian erbesteratua egon zenean jaso zuen eraginaren isla... (cf. Landaburu gasteztarraren pentsamoldea).

Euskal familiako umeek zer helduleku izan zezaketen, ikastolak lehen urratsetan zeuden sasoi hartan? Guk etxean *Jolasketa* ezagutu dugu, Onaindia Aitarena, *1000 euskal olerki eder* liburu paregabearen, eta Olerti aldizkariaren arima, gudarien kaperau ohia (Onaindia, 1965). *Giza Soina* ere erabilgarria zen etxean, hizkuntzaren eta heziketaren hasi-masiak jasotzeko.

Aipagarria zinez ekimen pribatuak sortu eta iraunarazi zuen *Kili-kili* lan-koadernoak umeak alfabetatzeko. Erredakzioa eta banaketa Jose Antonio Retolazaren esku egon zan urte askoan (1929-2014).

Euskara hire laguna Patxi Altunaren euskara ikasteko metodoa erabili genuen modu autodidaktan euskara ikasteko etxean, eguneroko eginkizunetatik bueltan, Lasa familiaren bizimodua hurbiletik ezagututa (Altuna, 1967).

Euskara ikastearen alde Xabier Gereñok lan eskergea egin zuen, eta apala, gure garaiko euskaldunei hainbat irakurgai mailakatu eskainita, bera lehena lan horretan, metodoak, etab. Autonomia zen, eta saltzekoak ziren argitalpenak saltzen ikus zezakeen erosleak urtero Durangoko bere standean. Haren anaiak ere bazuen irizpide komertziala: hiriko erakusleho batean ikusi genuen Euskal Herriko gida turistikoa. Bururatu zitzaigun: “Hau da gure zeregin filologikorik behinena: gure herriaren irudi egokia zabaltzea, hizkuntza, estetika, etika, politika, ekonomia...” Egia esan, euskal mundua horretan zebilen, baina ukitu turistikoa arnasbide gisa begitandu zitzaigun. Izan ere, aspalditxotik bada Deustuko Unibertsitatean *Instituto de Estudios del Ocio*, non Iñigo Urkulluk, berez maixua hezkuntzaz, ikastaroren bat edo beste egina duen...

Bilboko beste idazle aipatu bat Eusebio Erkiaga dugu; gogoan dugu haren *Iribarrea galtzen danean* (Erkiaga, 1965). Izenburuaren iradokizunak argitasuna ekarri zigun, gaia ilunak ziren haietan. Autorea, bidenabar, tradizionala, existentzialismo heldu berriari harrera onik ezin egin. Benetan ziren berunezko urteak, krisia industrialarena, non tunelaren amaiera nekez ikusi ahal zen.

Ezinbestean aipatu behar Mikel Zarate Lezamarra. Langile nekagaitza, Hizkuntza Eskolako irakaslea, hainbat lanen egilea; haren bat aipatzearen geure gustukoa: *Utopiaren fantasian* (1979).

2.2.Modernizazio estetikak

Francoren agintaldiaren azken urteetan kulturarekiko nolabaiteko eskuzabaltasun paternalista lortu zen boterearengandik: *aperturismo* esango zitzaion, Manuel Fraga ministroa zela. Euforiako giro hartan, ekoizpena loratu egin zen, erotismoa barne. Ordura arte, Marlon Brandoren *El último tango en París* (1972) film erotikoa eta antzekoak ikustera Iparraldera joan behar izaten zen. Irrati publikoa ere aipagarria izan zen, adibidez, Radio 3 hura, gobernu espainiarrak hegoak moztu baino lehen.

Joan Mari Torrealdai ikertzaileak aztertu du diktaduraren zentsurak nolako eragina izan duen euskal idazleen artean, adibidez, Gabriel Arestiren poemagintzan, Bilboko langileen egoera latza islatu zuena (txabolismoa, esplotazioa...), poesia sozialaren sorburuak (Torrealdai, 2000).

Gai hauek patxadaz nola kontatu bilatzea kritikaren agendan dago gure egunotan, eta zertzelada batzuk ematea baino ez da izan ahalegintxo hau. Badira *gauzaren* edo *gatazkaren* kontakizun hau doitzen saiatu diren idazle trebeak: Jokin Muñoz, Iban Zaldúa, etab.

Gerra osteko giroa suspertzen hasierako eragileetakoa Federiko Krutwig eta Luis Villasante izan ziren; Erriberako Euskaltzaindiaren egoitzan ezagutu zuten elkar Resurreccion Maria Azkue eta getxotarra. Euskara batuaren ekimena handik sortuko zen, Gabriel Aresti, Luis Mitxelena eta beste askorekin batera...

Bilbon urtetan funtzionatu du Krutwigen inguruko talde batek, geroago: *Jakhintza Baitha*. Greziaren aldeko taldea zen, Federikok bazuen hangoen aitortpena. Eta hil aurretxoan bere asmoa zen Sophopolis sortzea, jakintzaren hiria, antza denez ontzizabeen zuzkidurak erabilita Grezian emanak...

Euskara batuaren harira eta hizkuntzaren modernizazioa hizpide, UEUren lana eta UZEIrena. UZEI hiztegigintza alorrean sartu zen buru-belarri. UEUko zuzendari ohia Kepa Altonagaren kezka luzea izan da terminologia kontuak modu bere ustez egokian erabakitzea: ez horrenbeste ahalik eta nazioarteko terminoak euskal lexemekin hornitzea, baizik eta nazioartean onartuak direnak euskaraz ere erabiltzea gehiegizko garbizaletasunik gabe. UEUn euskara teknikoaren arloan ezin utzi aipatu gabe Ingeniaritza Eskolako taldea: Jose Ramon Etxebarria, eta bertako EKT.

Eztabaida bat izan zen Koldo Mitxelenaren eskutik eta Joseba Intxaustiren artean Orixeren idazki metafisiko batzuen harira, ea metafisikak benetan euskarri sendorik ote zeukan, ez ote zuen merezi kontu egiaztagarriagoetara jaitsi, euskararen garapenari gagozkiola

Enpresa gizonak aipatu gabe ezin utzi, euskarari taiu berria eman nahi izan nahi izan ziotenak. Ez ziren enpresaburu nagusiak baina bazegoen kezka enpresa txiki-ertainetan modernizazioa eta Espainia homologatzeari buruz, azkenean demokrazia ezinbestekoa izatea ekarriko zuena. Ildo horretatik, Jon Etxaide Itarte idazleak bere aitari buruz egindako biografia- liburu eredugarria iruditu zitzaigun hiri batean non teknologiak leku tradizionala izan duen aspalditik... Jon Etxaideren aitak, karlista euskaltzalea eta euskaltzainburua, Gipuzkoako sare telefonikoa zabaldu zuen. Adierazgarria iruditzen zaigu, ez kasualitatea, haren semeak, maiz, Ahaide Nagusien aroko istiluak erabiltzea bere idazlan batzuetan: *Gorrotoa lege*, *Alostorrea*... eta baita horren zorrotza izatea bere buruagaz idazlanak zuzentzerakoan, heziketa erlijioso errigorista baten ondoren... Ez zen ohikoa orduko giroan goi mailako teknikari baten lanak, hala teknikoak nola euskaltzaleak liburu euskarazko batean jasota irakurri ahal izatea.

Anaitasuna aldizkariaren ibilbidea, berez, bilbotarra izan da. Imanol Berriatua eta Xabier Kintana Israelera joan ziren hango hizkuntza-eskolak nola zebiltzan antolatuta ikertzera, *ulpanak*, alegia. Israelen oinarrizkoa zen hizkera bat paratu zuten biztanleek lotura linguistikoa ahalik eta arinen berreskura zezaten. Anaitasuna aldizkaria saiitzen zen euskara ulergarri estandarra oratzen irakurleentzat: horretan zebilen elantxobetarra. Gero, ildo beretik, *Euskalduntzen* metodoa sortuko zen, *Hitz egin* metodoa, alfabetatze gau-eskolak, EGA...

Urte hauek guztiak, *berunezko urteak* izendapena ez zait horren kaskarra iruditzen, latzak ziren sozio-politikoki, nahiz eta ez den gure esparrua, bidenabar. Bai, ordea, esan lantzean behin literaturaren esparruan agertu zaizkigula pozaldi batzuk, bizipoza berpiztekoak, alegia, *Irribarrea galtzen danean* aipatu dugu, Ignazio Maria Etxaideren biografia, eta hirugarrena bat ere, argi eta garbi, *Euskara kinka larrian*, Aingeru Irigarairena: hura aurkikuntza, mediku baten eskutik! Ze batzuetan ez dakigu sano gauden ere parametro normalak kontuan hartuta hain kixotezkoak tokatu zaizkigun eginkizunotan... ala eskizofrenian bizi garen; euskararen inguruabarren berria ez lukeen medikuak ez luke zalantza handirik egingo, eta ez dagoz horren urruti. Haren seme Jose Angel Irigarai poeta ezin aipatu gabe utzi Kafe Antzokiaren hainbat ekimenen bideratzailea. Baina Kafe Antzokiaren itsasaldiak aparteko paragrafoa merezi luke.

2.2.1. Gabriel Aresti poeta soziala

Francoren diktaturaren azken hamarkadetan, Frankoren zentsurak bide apur bat eman zuenean horretarako, eta estetika neoklasikoaz gain, beste batzuk azaldu ziren. Gabriel Aresti bere antzeko artistekin biltzen zen Bilbo industrial kutsatuan *La Concordia* edaritegiko hitz-aspertuetan, haiek ere gizartearekiko kritiko: Ibarrola margolaria, Blas de Otero poeta... Hala ere, ezaguna da Gabriel Arestik egin zuen bira idazketa kultista batetik beste proselitistago batera...

Unamuno baldin bada Bilboko erdal idazleen artean buruzagia, euskal idazleen artean enblematikoa Gabriel Aresti (1933-1975) dugu. Friedrich Nietzsche irakurri zuen eta haren eraginez baita *Maldan Behera* idatzi ere, poema luze kateatu baten tankeran. Kultura zabalekoa izanda Tomas Stern Elliot (1888-1965) idazle katolikoa ere irakurri zuen, baina batez ere bere gizarte-poesiagatik da ezaguna gaur, euskarazko Gabriel Zelaia (1911-1991) edo Blas de Otero (1916-1979) bat balitz bezala. Blas de Oteroren lana ere, ez da dena "soziala", Arestirena bezala, baina hori da orain arte hobetsi dena; agian, irakurketa desberdinak egitea dagokigu memento honetan, agian, bion obra osoa ñabardurekin ezagutu ahal izateko. Aresti idazlea izateaz gain bultzagilea izan zen, besteak beste Oskorri musika-taldearen arima sortzailea, Bernardo Atxagaren aitapontekoa, Kriseilu argitaletxearen sustatzailea, antzerki taldea, etab.

Blas de Otero poetak, jatorriz arratiarra, Bilboko mugak gainditzea lortu du gaztelarazko olerkigintzaren arloan. Haren poesia ez da dena gizarte-poesia, baina hori du orain gehien kontuan hartzen zaiona. Gizarte-poesia zen errebindikazio antifrankista gailen zegoenean erabili zen olerki moldea, salatzeko herri klaseek jasaten zuten ahanztura klase gidarien aldetik. Orain udalak urtero oroimen-egun bat eskaintzen dio Blas de Oterori, Miguel de Unamunori, Angela Figuera eta Gabriel Arestiri bezala.

Orain ere badira poeta seinalatuak Bilbon: adibidez, gaztelaniaz, Javier Agirre Gandarias (1941-2019) berriki zendua. Bere idaztankera xaloa da, eta zuzen bihotzera hel erraza. *Romancero* delako herri poesia zuen eredu; "todo está en el romancero" zen bere esamolderik kutunena, bere *mottoa*.

Euskaraz, haren lagun bat ere gailentzen da bere poesiak jaso dituen laudorioengatik: Luigi Anselmi poeta, itzulpengintza irakasle, ibilbide lasai eta jarraiki baten jabea liburutik liburura. Haren kantak adiskidetasunari eta edariari buruzkoak dira. Ingeles Filologiako lizentzia kontuan izanik, ondo ezagutzen du literatura anglosaxoia. Erdaraz ere idazten du. Katulo idazle erromatarraren irakurle saiatua, hainbat ekimenetan hartu du parte hirian: Jose Mari Sanchez Carrión Txepetx Bilbon soziolinguistikako ekimenak bultzatu zituenean, adibidez. Hortik sortuko zen gaur egungo Kafe Antzokia eta Zenbat Gara elkarte. Pamiela argitaletxearen inguruan batzen den taldeko partaidea, bere poemak musikara aldatu dituzte. Pamielaren inguruko taldearen sortzailea eta hauspoa urte luzetan Jose Maria Larrea, *Txema*, dugu, literaturaren arloko hainbat lanen egilea, EHUKo irakaslea: nafarroako idazleak direla, Jon Mirande, euskararen egoera. Bereziki gustagarria iruditu zaigu *Elhe neumatikoak* (1996), haren aipu bilduma *garbosoa*, umoretsua eta ironikoa hasieratik bertatik

2.2.2. *Estetika existentzialista*

Txillardegi inginadoreak Bilboko unibertsitate-eskola zorrotzean ikasi zuten; Jose Luis Álvarez Enparantza existentzialismorako joera hartu zuen lehen eleberrietan (*Leturiaren egunkari ezkutua* (1957); *Peru Leartzako* (1960); *Elsa Scheelen* (1969)), Sartre, Camus eta Simone de Beauvoir boladan ziren urte haietan. Bertako abesbatzaren zuzendaria izan zen. Formazio horretatik ulertu ahal da euskal soziolinguistikari egin zion ekarpen matematiko-estatistikoa, eta beste hizkuntzalaritzaren ikuspegi zientifikoak: fonologiaren azterketa...

Estetika existentzialista zabalena izan da, hala sinestunen nola sinesgabeen artean bi mundu gerren artean, eta baita bigarren mundu gerraren ostean ere. Lauaxetatik hasita, Unamuno, hainbat erlijioso, Jose Luis Alvarez Enparantza bera, Andolin Eguskitza... Andolin, hizkuntzalari santurtziarra Peter Wust pentsalari alemaniarraren irakurlea zen (adibidez, gaztelaniaz, (Wust, 1955).

Filosofia horrek ekarren beragaz jainkoaren baitako sinesmenari itzuri egin ahal izatea. Ez da estetika bat *ataraxia* estoikoa bilatzen duena, oreka, edo Epikuroen neurritasun gozatsua, edo eszeptikoen ziurgabetasuna edo *eudaimonia* (Aristotelesen bizitza on bertutetsua). Estetika existentzialista aldaketa garaiko estetika da, egokia industria-garapen sasoi baterako, langile ezinegona artikulatzeko, edota, erlijioaren aldetik, ohiko egitura eta sinesmenetan aldaketak egiteko aproposa. "Iraultza": dela burgesa, dela sozialista, baina planteamendu agonikoa, hau da Olinpiadetako *agonarena*, atletarena.

Argi dago existentzialistak gizartean eragin nahi duela literaturaren bitartez, helburu soziopolitikoa du: sorkuntza literarioaren alderdi ekonomia, idazlearen lanbidea gehiago da militantzia erakoa, langile jarraiki batena baino. Eztabaida hori argi izan zuten Txillardegik eta Jose Irazuk.

2.2.3. *Literaturaren autonomia. Pott banda eta handik aurrera*

Bilboko literaturaren historian beste mugarri garrantzitsu bat Pott Banda izan da, esan bezala. Inguruan partaide asko izan dituen taldea, 1977tik aurrera abiatuta, baina seinalatuenak hauek dira: Bernardo Atxaga, Jon Juaristi, Erruper Ordorika, Manu Ertzila eta Joseba Sarrionaindia, Juan Mari Iturralde, Jose Julian Bakedano, Jon Juaristi... Idazle hauek idaztetik bizibidea atera nahi zuten, euskarazko literaturan lehen aldiz. Literaturaren autonomia aldarrikatu zuten, helburu sozial edo nazionaletatik libreki hitz egiteko eskubidearen defentsan. Esan daiteke beraien belaunaldia kanonean dagoela, gure artean.

Azken hamarkada hauetan Pott Banda izan da kritikaren onespenera erabatekoena duena. Literaturaren eta artearen autonomia aldarrikatu du, morrontza ideologikotatik aparte: hainbat letrako eragileren mintegi eta biltokia izan zen, hala erdaldunak nola euskaldunak.

Beste talde bat ere aipatuko dugu, Bilboko panoraman: Pamiela argitaletxearen ingurukoa. Ari gara Txema Larrearen (1954-2018) inguruan bildutakoak Bilboko bazkietan, Hernani kalean Bilborocken inguruan: Kepa Larrea, Jesus Etxezarraga, Luigi Anselmi, Javier Agirre Gandarias (1941-2019), Jose Julian Bakedano, Kepa Altonaga... Jose Julian Bakedanok Arte Ederretako Museoa lan egin du ikus-entzunezkoen arduradun gisa, bertako zinematekaren sustatzailea; horrez gain, euskal zinemagintzan urrats goiztiarrak egin ditu: arteari buruzko dokumentalak, literaturgileen lanak zinemaratzea (Joseba Sarrionandia), dokumental historikoak (Agirre Lehendakariari buruz)... Talde honek historia luzea du, eta bere ibilbide luzean gizabanako horiek hainbat aldizkaritan parte hartu izan dute: Pamiela, (1983-1993), *Txistu y tamboril (1983-1993)* *Mazantini* (1991-1993), eta beste. Lan honetako markoa aisa gainditzen duen eginkizuna. Talde honek, bestalde, parte handia izan zuen Bilbon euskara biziberritzen Txepetxek Bilborako plangintza zehatz bat jorratu zuenean Bilboko Euskara Zerbitzuarekin (Jose Joakin Gallastegi), Siadeco, Luigi Anselmi eta beste batzuekin: horren emaitza izan zen Zenbat gara elkarte eta Bilboko Kafe-Antzokia... Orain talde hori Iparraldean argitaratzen den *Touroum bouroum* aldizkaria bultzatzen parte hartzen ari da: badaramatza dozenatik gorako zenbaki argitaratuak, Pirinioen inguruko hainbat hizkuntzatan idatzitako idazlanak barnean jasota.

Emaitza ez zen izan espero bezainbestekoa, baina bai kontuan hartzekoa gerora izan dituen fruituengatik: Kafe-Antzokia da Bilboko arnas gune bizienetakoa, gaur egun.

Geroago, demokraziako lehen urteetan (1977) Bernardo Atxaga Uribarri auzoko bizilagunak abanguardia isuri zuen poesiara *Etiopia* (1978) liburuan, Pott Banda izeneko idazle taldea sustatuta. Urte itxaropentsuak ziren euskal kulturarako, ezaldi luze baten ondoren. Atxagak, geroago, abanguardien baliabideak ahaztu barik idazteko eskola bezala, bide konbentzionalagoetatik jo du, ez Pariseko dadaismoa eta surrealismoa bezain esperimentalak. Esan daiteke estetika espresionista ere indarrean egon zela orduko ekoizpen batzuetan (Kortazar, 1994, 206-209. or.).

Demokrazia etorri bazen ere, piztu ziren ilusioak ez ziren erabat bete, ezta hurrik eman ere. Generala hil aurretik eta ondoren benetako irakinaldi politikoa egon zen, demokrazia partehartzaile bat etorriko zelakoan, azken buruan demokrazia formalarekin konformatu beharra izan bazuten ere trantsizioan parte hartu zuten eragile politiko ugariak, bat baino gehiago muturrekoak. Orduko partiduen siglekin letra-zopa ugaria apailatu daiteke: PTE, ORT, MCE, LKI, LAIA bai. LAIA ez, HASI, ESB, EHAS, EIA, ANV, FRAPO, PCE, PCML... Bazen besterik ere, beste arlo batzuetan: Komite Antinuklearrak, Amnistia-Gestorak, Gesto por la paz, AEK, IKA, Eladioak... Orain Katalunian indarrean dagoen *procès* bera ere, garai haietan planteatutako inguruabarren jarraipena ikus daiteke, begirada apur bat zorrotzuta.

Lanaren ikuspuntutik bi krisi nagusi izan ziren XX. mendeko bigarren erditik eta gaur arte: bata 1973an abiatua, eta bestea 2008an sortua.

1980koa petrolioaren krisia izan zen. Haren ondorioz, Bilbo ingurua krisi sakonean sartu eta industria gune izatetik zerbitzu hiri izatera igaro zen; urte

haiek latzak izan ziren, eta euskal autonomiako agintariek benetako itzaropen-ariketa sakona egin behar izan zuten etorkizunari buruz. Apustua irabazi dute, ebidentzia guztien kontra borrokatuta.

Irakurlearen gogoan iltzatuta daude orduko aldizkariak: *Anaitasuna, Zer, Zeruko Argia, Goiz-argi, Karmel...* euskaraz; erdaraz, *Punto y Hora, Garaia, El Viejo Topo, Ajoblanco, Triunfo, Cuadernos para el Diálogo, Cambio16...* Tradizio kulturala ekarpen aurrerakoiarekin eta undergroundarekin elkarbizitzen hasiko zen.

Orduko idazleak ere, denetarikoak, gutxi batzuk aipatzearren: Agustín García Calvo, Luis Racionero. Rafael Castellano, Daniel Innerarity, José Luis Merino, etab. Erdaraz; euskaraz, José Luis Álvarez Enparanza *Txillardegí*, Emilio López Adán *Beltza*, Amatiño, Bixente Latiegi, Alfontso Irigoien, Imanol Berriatua, Xabier Kintana, Sabin Arenaza, Andolin Eguskitza, eta abar. Bilbon baziren liburu-dendak eta kanpotik iristen hasi ziren ordura arte debekatuta zeudenak. Gogoan dugu Friedrich Nietzscheren liburuek izan zuten zabalkundea, baita poltsiko-formatuan ere, edonon salgai ikus zitezkeen. Bilbon baziren liburu-aurkezpen jendetsuak; nola ez aipatu *Herriak* liburutegia, Institutu Zentralaren ondoko Pozas kale hartan hainbeste urtez zerbitzua emana.

Literaturgileen ondoan garrantzitsuak dira Bilbon baita liburu-dendak ere. Franko ondoko irakinaldi hartan José Luis Merino idazleak gidatutako *Herriak* liburu-denda seinalatua izan zen, Pozas Lizentziatuaren kalean: zenbat liburu-aurkezpen ez ote dituen egin! Gaur egun, online bidezko merkataritzak bizimodua zaildu die liburu-denda txikiei.

Gogoan dugu baita *Verdes-Atxirika* liburutegi eta argitaletxe historikoa ere, oraintsu omenaldia izandakoa eta eskuineko terroristen leherketa baten biktima izan zena. Errepublikara garaietan, euskal liburuak eta beste (kartelak, txostenak...) argitaratu ere egiten zituen. Omenaldian, liburutegiaren zerbitzuaren hartzaile azaldu ziren Oskorriko Natxo de Felipe, Erruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Jule Garmendia, eta publiko zabal bat ere bai. Azkenean, *Verdeseko* langileak Elkar taldera aldatu ziren. Arriaga antzokian egin zitzaizen *Verdes* liburutegiko langileei merezi zuten aitortza publikoa. Hala ere badira Bilbon urte luzetan lan egin duten argitaletxe eta inprimategiak euskal liburua plazaratzen jaiok hainbat urtetan: merezi luke horien arkologia industrial egitea memoriaren ariketa mordura: Delmas, gráficas Grijelmo, Cinsa, Xabier Gereñoren argitalpenak, Mensajero...

Liburutegiok Bilboko bizitza kulturalaren dinamizatzailerak izan ziren, Internet aurreko garai hartan. Baziren gehiago: *Galería del Libro, Casa del Libro...* Orain, euskal liburu-denda txikiek bizitza zailagoa daukate, Elkar eta Ibaizabal bezalako talde-indarra eratzen ez badute behintzat. Institutu zentralaren ondoan badirau zutik aspaldiko *Cámara* liburu-denda; atzerriko liburuak eta aldizkariak ekartzen izan ditu hirira azken hamarkada hauetan. Ekitaldi biziak antolatzen ditu, irakurleek edozein jardura bitxirako sarbideak, abaroa eskaintzen baitie ekimen originalei. Liburua irakurleei hurbiltzeko ahalegin bikaina. 2019an Moskotarrak konpartsak saria opatu dio *Cámara* liburudendari. Bertan, liburuzainak edozelako aholkua eskainiko dizu inongo erreparorik gabe. Tamalez, esan behar da kalitatezko eskaintza horrek ez duela

besarkatzen euskarazko produkzioa modu esanguratsuan, nahiko era anekdotikoan baino. Bestetik, nola ez aipatu Ledesma kaleko *Jakintza* liburu-denda, apezpikutegiaren hurbilekoa, erlijiozko produkzioan zentratua, modu oso duin batez, euskal Elizatik hurbileko materialak eskainita. Bada, arlo horretan, *San Pablo* liburu-denda ere *Jakintzatik* hurbil, baina Espainiako San Pablo argitaletxeari lotuta dago: nekez aurkituko duzu ezer euskaraz han. Jakin berri dugu *Anti* liburu-denda lanean dabilela Bilborocken ondoko kale batean, liburu alternatiboari bidea eraginez. Zorte on! Erronda kaleko *Likiniano* liburu-denda ildo anarkistatik jotzen du, situazionismoa eta gogoan dituela salgai inprimatuak erakusleho jarrita. *Lauaxeta* liburu-denda itxi zuten Indautxun, bestalde. Albiako lorategiaren ondoan zegoen *Kirikiño* liburu-denda euskaltzalearen ordeztu, oraintsu bigarren eskuko liburu-denda apain eta aberatsa jarri digute.

3. 1986 Krisi industrialia eta Guggenheim

Liburu-denden *excursus* txiki hau eta gero, gatozen harira, berriro ere. Ari gara apur bat Bilboko gizarteak lan arloko eboluzioak izan dituen zertzeladak ematen. 1980ko krisiaren ondorioz industriak porrot egitean, Sestao eta Barakaldoko ontzi-olak eta Labegaraiak ahultzea ekarri zuen. Bizimodu bat galtzera zihoan; garai batean enpresa baten lan egiten zuenak, aukera izan ohi zuen semea ere enpresa berean jarduteko aitaren ondoan, aitakeria punta batekin frankismoak bultzatua; bai, estatu frankista paternalista zen eta jendea adin-txikikotzat jotzen zuen. Ez dakigu zer pentsa gaurko lan-egoeraz, zeren eta oraingo prekarietatea eta enprendizajea guztiz kontrakoa da, baina emaitzak ikusteke daude, oraindik. Sestaoko hiri-tonua berreskuratzea, hortaz, ez da izan ahuntzaren gauerdiko eztula, enpresa nagusien zordun zen aktibitate ekonomiko garrantzitsua moteldu egin zen-eta denbora laburrean. Dendak itxi ziren, lekuak hustutzearen ondorioz populazio galera eta gizarte-istiluak izan ziren eta ezinegona zabaldu zen.

Irtenbiderik gabeko tunel honetan gazteriak rock erradikalean bilatu zuen babesa: *Eskorbuto* taldea Portugaleten, *Zarama* Barakaldon, *Las Vulpes...* eta gainerakoak han eta hemen jotzen zutenak: *Hertzainak*, *Etsaiak*, *Su eta Gar...* Reggae ere bidea egin zuen kalamu erretzaileen gusturako: *Potato* Gasteizen, etab.

Honelako kontuetan ez da komeni zauriak berritzea eta diplomaziaren hegalpean utziko dugu testuaren norabidea: errealitatea irakurtzeko moduak eta moduak daude, baina garrantzitsua ekuanimitatea ikasketa kulturalen metodologia erabiltzen denean errealitate-testu horiek interpretatzean, zeren eta gogoan dugun eta begien aurrean, Batasunaren Kutxa, hau da, Sancta Santorumeko tenploan dagoen aliantzaren kutxa kontuan hartzea.

Esan bezala eta zilegi bekigu errepikatzea, Rock erradikalarekin droga etorri zen, ihesbide bezala errealitate jasangaitzaren aurrean. Bilboko Zazpi kaleetan beste leku askotzan bezala erraztasun handiz aurkitu zitezkeen, heroinaz gain, speeda, anfetaminak, koka, tripiak eta abar., ahaztu barik horiek sarri aizundu edo adulteratutako drogak zirela. Morora jaisteia ohikoa zen, Marruekosera, oro har, eta Marrakecheko hirira, zehazki. Azken aldiko jai

herrikoietan, jarri dituzte bulegoak jendeari arreta egiteko ziurtatuz hartzen duen kalamua eta txokolatea benetan kalitatezkoa ote den. Drogak izan ohi dituen arriskuez gain, gaineratu ohi zaio merkantzia kalitatezkoa ez izatea.

Ameriketatik heldu zen hippyen olatua geure inguruetara heldu eta ikuspegi alternatiboa ekarri zuen; lan egitea eta produkzioa ez zituen hartzen helburutzat, baizik eta bizimodu patxadatsu eta baketsua, buruko minik gabea. Kontuan izan behar da AEBko gazteria Vietnameko gerra odoltsura bideratzen zuela gobernuak eta horrek gazteen matxinada ekarri zuela.

Hippyek esperientzia psikodelikoak bultzatzen zituzten, LSDarekin, eta baita onddoekin ere, adibidez, Carlos Castaneda txaman amerikarraren irakaspenei men eginda. Bizimodu alternatiboa zen eta ardatza gutxiarekin konformatzea zuen, lagunarte gozoan edo komunan, erotismo gradu altu batekin (amodio librea). Literaturaren alorrean, *beat generation* esan zitzaion, Jack Kerouac idazlearen *On the road* (1957) eleberria ikurtzat dutela. Oraintsu itzuli dute euskarara, *Errepidean* izenburuarekin, Pasazaite argitaletxean.

Surfa ere bide horretatik abiatu zen Kaliforniako hondartzetan. Hasieran gutxi batzuen kirol bitxia baino ez zen Orain surfak arrakasta du gazteen artean eta kanpotik ere turistak erakartzen ditu Urdaibaiko hondartzetara, adibidez, aspaldiko bainu-zaleen eskandalurako beren igeriketa eremua murriztuta ikusten dutelako, eta surf-taulen mehatxuarekin igeri egin behar delako. Badirudi goi mailako arituen kirolak eta artefaktu kulturek herritartu egiten direla denboraren poderioz, surfarekin, kanoarekin, tenisarekin, yogarekin eta beste hainbat fenomenorekin gertatu den bezala.

Bilboko lan-egoeraz ari garela, goazen 2008ko krisiarekin, eta haren aurreko gizarte-giro ustelaz. Atal hau amaitzeko ekonomiari buruzko ohar bat: XX. mendetik XXI. mendera igarotzeko modua deigarria izan zen, kaleko giroa poliki-poliki aberastasunean igerian bagina bezalakoa izanik. Higiezin burbuila lehertu aurretik, hiritarrak higiezinak salerosten zituen ia dirurik izan gabe, esperantzaz eta denbora laburrean saldu ahal izango zuela erositakoa, mailegua erraztasun handiz kitatu eta etekin pozgarriak lortu gehiegi nekatu gabe.

2008ko krisia etorri zen; gizarteko erdi mailak kolpatuta geratu ziren eta urritu; higikortasun soziala murriztu eta ongizate-estatuaren eredu ekonomiko Keynesiarra *guardabajo* jausi zen, diotenez. Ekonomia berronertzea urtetako kontua izango da; bankuek egin zituzten finantza-eragiketa aldrebesak garesti ordainduta gizartearen multzoak. Ez dakigu bankuak erreskatatzeko erabili ziren milioiak eta dirutzak noiz jasoko dituen bueltan denon dirua kudeatzen duen estatuak.

Garai hartakoak dira euskarazko titulu batzuk giro nahasi horrek isla, *Speed gauak*, *Anfetamiña*, *Ugerra eta kedarra*, *Auzoak*...

Gotzon Garate Deustu Unibertsitateko irakaslea eleberri poliziakoa eta beltza lantzen hasi zen. Jesuitak gizarte-kritika baliatu zuen hirietako injustizia salatzen. New Yorkeko giroa jaso zuen bere bizipen zuzenetatik, eta

eleberriaren historia goiztiar bat ere ondu zuen. Jakin izan du mundu mailako joerei begira eta di egonaz, euskal mundura kanpoko zantzuak lekualdatzen.

Bilbo aipatuta, ezin ahaztu urte luzetan, kanta euskaldunaren arloan Oskorri taldeak eginiko ekarpen aberatsa edukiz eta urte askoan barrena. Natxo de Feliperen taldeak hainbat idazleren lanak taularatuta, disko dotorean paratu ditu porten antologiaren formatuan: Bernard Etxepare, Gabriel Aresti, Marijan Miñaberi, Bizkaiko ume kantak... disko monografikoei gagozkiela, eta hainbat idazleren poema solteak ere ederto musikatu ditu.

Desenkusa bezala, kronika txiki honek hainbat hari-mutur utzi ditu albainuan, eta agian, hutsik nabarmena izan daiteke *Idatz eta Mintz* aldizkariak eta inguruko idazle-taldeak eginiko lan dorpea, Mendebalde elkartearen izan zenak euskal kulturaren inguruan urtetan paratutako jardunaldiak, zer edo zer aipatua badator ere Galburua idazlan sorta aipatzean. Oraindik orain Laura Uruburuk idazten jarraitzen du. Bego beste baterako, edo beste luma patxadatsuago batentzat. Azken finean, goiko hauek memorian gorde ditugunenen zantzuak besterik ez dira, apur bat *abotepronto*, *aboteprontoegi* agian: barkagarri bekigu, nolabaiteko interesa badutelakoan...

3.1. Bilbotarrek ala bilbotartuek idatzitako liburuak

Hauek dira bilbotar izan ala ez, Bilbon bizi ala ez, Bilbo motibotzat hartu duten idazle-taldeen gehienak, euskaraz behinik behin. Beraz ez da idazle bilbotarren zerrenda bat eta ez haien idazkiena ere¹.

Abeletxe (Manuel Ziarsolo). 1975. *Gazi-gezak*. Edili.

Agirre, Txomin. 1906. *Kresala*. 1902-1905, *Euskalerrria* aldizkaria

Akesolo, Lino. 1989. *Idazlan guztiak*. Karmel.

Arrese Beitia, Felipe. 1900. *Ama euskeriaren liburu kantaria*. José Astuy.

Arretxe, Jon. 2012. *19 kamera*. Erein.

Artiagoitia, Xabier. 1984. *Ama*. Elkar. Bilboko giroa orduan.

Azkue, Resurreccion Maria. 1989 [1920]. *Latsibi*. Labayru.

Barandiaran, Gotzon. *Errotik*. Euskalduna ontziolako itxieraz dauka liburu bat

Berriatua, Imanol. Narrazioa, didaktika eta erlijio-ko liburu eta artikulak.

¹ Bilbo, Bilbao, bilbotar, Bizkaia... lema EHUKo Euskara Institutuko corpusetan: Ereduzko Prosa Gaur Corpusean eta beste corpusetan lema horien ugaritasun handiena daukaten literatur lanen kritikak irakurri dira Zubitegian. Aztertu ditugu lema horiek corpusetan, jakiteko historikoki Bilbori buruz zein liburu aritu diren euskaraz. Badira beste liburu batzuk ere, Bilbo aipagai dutenak, eta bertan girotuak, baina geure bahetik iragazi ez direnak, lema horien aipuak gutxiagotan agertzeagatik. Hori izan da geure bidea, eta egin ahal izan duguna.

Egia, Lutxo. 2007. *Zubigilea*. Susa. Aldaketa urbanistikoaz ari da, ustelkeria salatuta, besteak beste, Zorrotzaurreko obra berrietan.

Erkiaga, Eusebio. 1962 *Araibar zalduna*. Itzaropena.

Etxeita, Jose Manuel. 1909. *Josecho*. Elosu.

Gereño, Xabier. Narrazioak, antzerkiak, eleberriak eta artikulak *Anaitasuna* aldizkarian

Irigoién, Alfontso. Saiakera, poesia eta autobiografia.

Iturriaga, Unai. 1999. *Berandu da gelditzeko*. Susa. Gazte baten ibilera bohemioak Bilbon zehar

Jimenez, Edorta. 1991. *Speed gauak*. Susa.

Kamiñazpi (Jose Maria Etxaburu). 1989. *Neure lau urteko ibillerak*. Auspoa.

Kintana, Jurgi. 2007. *Sabino Arana, Euzkadiren aita*. Elkar.

Kintana, Jurgi. 2015. *Azkie, bilbotar ezezaguna*. Erein.

Kintana, Xabier. Eleberriak, itzulpenak, saiakerak, haur literatura, artikulak...

Kirikiño (Ebaristo Bustintza). 1918. *Abarrak*. Grijelmo

Kirikiño 1984. Edo geuk ñok ez euskeraren alde. Labayru.

Kirikiño. 1980. *Bigarrenko Abarrak*. GEU.

Krutwig, Federiko. Saiakera, narrazioak, itzulpenak.

Mitxelena, Salvatore. 1958. *Unamuno eta Abendats*. Darracq.

Rekalde, Paddy. 2004. *Bilbo dub kronikak*. Susa poema-liburua; Bilbo bazterrekoa, ez turistikoa. Rekaldek Bilboko marginatuen irudia ematen du poema sorta honetan. Paddy Rekaldek badu beste liburu bat. *Ragga-ragga dator gaua*. 2006. Susa. Bazterketa-munduari eginiko begirada da, hau ere bai.

Soto, Iñaki. 2006. *Unamuno*. Elkar.

Uribe, Kirmen. 2008. *Bilbao-New York-Bilbao*. Elkar.

Urrutikoetxea, Urtzi. 2005. *Auzoak*. Susa

Zamarripa, Paulo. 1930. Kili-Kili (Barre Ipuiñak).. Bigarren liburu-barrezalea. Gaubeka Irarkola

Zarate, Mikel. 1890. *Bilbo irribarrez*. Bizkargi. Gainera, narrazioa, eleberria, saiakera, poesia, gramatika...

Zelaieta, Angel. 2000. Gabriel Aresti (biografia). Susa.

Zubikarai, Augustin. 1994. *333 oroipen eta ikuspegi*. Egilea editore.

Zugatzaga, Pillipa. 1899. *Matxin mungiarra*. Euskalzale.

Egia esan, errepassoa egin eta gero, somatzen dugu aldebakartasun kezkarria euskarazko idazlanek jaso duten ikuspuntuari buruz. Bilboko ikuspegi kritikoa ageri zaigu azken urteotako artean, dituen eskasiak eta hobe beharrekoak, aspalditik ezagun direnak: droga, bazterkeria, etorkin deserrotuak, eskea...

Ematen du Bilboren alderdi morbosoa baino ez duela jasotzen euskarazko literaturak.

Ez dugu, horregatik ere, ikusi barneko ikuspegi bat, bilbotar proaktibo baten batena, azken hamarkada hauetan hiriak hartu duen hobera bideo marraztuko diguna. Agian Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* izan daiteke beste paradigma horretan kabitzen dena. Liburuari kritika zorrotz samarra egin zaio esanez euskaldunaren irudi otzana eman duela, gatazka identitariorik egongo ez balitz bezala, euskalduna bere hobe beharrez ibiliko balitz bezala etengabe, indibidualki eta gizarte-loturarik gabe. Ezaguna da enpresa-ekimen partikularrek orain duten gora, eta zeinen begi onez ikusiak diren instituzioetatik. Autonomoak beti izan dira, eta beren jarduna zein nekeza izan daitekeen jakina da. Ongizate estatuak 2008ko krisian kalteak jaso zituen, eta ekintzailatza edo enpresa-sorkuntza (*empresadizaje*) eredu da boladan jarri dena azken aldian. Angel Errok dio Zubitegiko kritika batean pertsonaiak onberegiak direla Uriberen elaberrian, eta positiboak, berak estimatzen duena giza izaeraren konplexutasuna denean, literaturaren bilaketan. Ibai Atutxak ere aipatu du Uriberen eleberririk Espainiako estatua birsortzeko ariketa bat dela².

Guggenheimek izan zituen kritiken berri bada, Euskalduna ontziolako istilu gorrien berri, poliziaren eta langile matxinoen artean. Hiriaren etorkizun turistikoa zalantzan jartzen duen lanik badago. Horiek guztiak Bilboko historiaren zati dira, baina ez haren osotasuna.

Bizkaiako herrietan ere izan da idazlerik Bilbo hiriburuaz artatu denik. Hala ere, ikuspegia azalekotzat jo beharrean gaude, Txomin Agirre datorkigu burura eta haren manikeismo moralak, errazagoa dena kritikatzeko geure egunotan, orduko haietan baino.

Gauzak horrela, nolako ekarpena egin lezakete euskal letrek gaur egungo Bilboko kulturari? Geure ustez, letrek mamiari eraso behar diote, eta azaldu irakurleari gaurko Bilboren norabidea zein izan daitekeen, kontuan izanda azken urteotako bilakaera globalizatzailea.

Etorkizuneko estetikak igartzeko ez da samurra, baina irakurle bilbotarren artean indarrez dator Jon Arretxeren nobela beltza. Bazter auzoetako giroetan

² Atutxa, I. 2012. *Kanonaren gaineko nazioaz*. Donostia. Utriusque Vasconiae.

kokatzen du kontakizuna, migratzaileak protagonista San Frantzisko bezalako kaletarte multikulturaletan.

4. Despedida

Bilbon mugitzen den bizitza kultural guztian erreparatzen du konpultsiboki kulturetak. Ezin jakin nongo saltsatan murgilduta ikusten duen bere burua, jakin gabe zer den neurritsua edo egokia gizartearen eta bere bizitzaren memento bakoitzean, kasurik txarrean, ez eta bere buruarentzat ere, batzuetan. Izan ere, ez zen txantxetakoa AEBtik Vietnam-eko guduaren ondorioz iritxi zen uholde hippy hura, drogazaletasun danganino harekin.

Europa eta harantzagoko korrante filosofiko-artistikoen berria du hiriburuak arinago, esan baleike, eta, horregatik, probintziako bizilagun apalari bitxia iruditzen zaio hainbesteko gogo-barreiaketa, betiko sinesmen tradizionalak gidatuta bidea egiten dute-eta arazo larri barik (*sota, caballo y rey*). Egia da, Bizkaiko itsas-portuetan izan dutela drogaren berria, dirua egoten izan da-eta. Baina datu horrek beste norabide batean garamatza...

Bilbon bertan ere hiritar kontserbatzaile asko bada. Modernizazio kulturala zein prozesu motela den ikuspegi praktikoa samarra duen hiri batentzat! Kontuan zan oraintsu Bilbok Verdi operagilearen antzezlan guzti-guztiak taularatu duen munduko hiri bakarra dela: norenak eta Verdirena, denik eta opera konpositore klasikoetan klasikoena.

Orduko hamarkada haietan, demokraziaren lehen hamarkadetan, boladan izan dira aldian-aldian Friedrich Nietzsche, Lao tse, Janis Joplin, Charles Bukowsky, William Burroughs, Jimmy Hendrix, Zuberoako pastoral eta maskaradak, aldarrikapen abestiak (Pantxoa eta Peio, Etxamendi eta Larralde, Estitxu...) eta beste hainbat orain ahanzturan eroriak. Munduaren ikuskera gisa ezagutu ditugu: Feng Shui filosofia, makrobiotika, veganismoa, familia-konstelazioak, Tarota, arte martzialak...

Hiriak badu desabantaila hori gogo sakabanatzeko. Badira nonahi eskaintzak, hala filosofiko-literarioak nola musikalak zein artistikoak, hain nabarmen non formazioaren bila dabilen hura zazpi begiekin ibili beharra daukan bere asmoak burutzeko norabidea galdu gabe, jarraikitasunari eutsita inoiz lorpenik izango badu, itsutu gabe zurrunbiloan erorita. Landa inguruko biztanle jakinminak eskaintza murriztagoa dauka, baina esperimenduak heltzen zaizkionean hirian testatuak jasotzen ditu.

5. Bibliografia aipatua

Altuna, P. (1967). *Euskara, ire laguna!* Mensajero.

Erkiaga, E. (1987). *Iribarrea galtzen danean*. Bizkaiko Foru Aldundia.

Etxaide Itharte, Y. (1986). *Etxaide Jauna*. Erein.

Garate, G. (2000). *Eleberriaren historia*. Gero.

Garate, G. (2009). *New York, New York*. Elkarlanean.

- Iturregi, P. (2019). *Ur biren artean*. Elkar.
- Jimenez, E. (1991). *Speed gauak*. Susa.
- Juaristi, J. (1999). *El chimbo expiatorio*. Espasa.
- Kortazar, J. (1994). "Bilbo eta euskal literatura". *Bilbo, bizia, paisaia, sinboloak*. en Sendoa.
- Lanz, J. J. (1994). *La ciudad de otra manera* (Bilbao, vida, paisajes, simbolos. bol.). Sendoa.
- Larrea. (1996). *Elhe neumatikoak*. Pamiela.
<https://armiarma.eus/gordailua/LarreaJMEleNeumatikoak09.htm> helbidetik eskuratua
- Lorenzo, M. (2012). El Fuerismo victoriano: el caso de Vicente Arana. *Sancho el Sabio*(35), 85-108.
- Montoya, X. (1983). *Anfetamiña*. Susa.
- Onaindia, A. (1954). *1000 euskal olerki eder*. Karmeldar idaztiak.
<https://euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1954/Mila%20Euskal%20Olerki%20Eder%20627.pdf> helbidetik eskuratua
- Onaindia, A. (1965). *Jolasketa*. Elorri.
- Ortiz de Pinedo, A. (2011). *Euskal literatura Gernika aldizkari liberalean*. Erroteta.
<https://addi.ehu.es/handle/10810/16796> helbidetik eskuratua
- Ortiz de Pinedo, A. (2011). *Humanismoaren ideia gerra ostean*. Hals. Eskuratze-eguna: 2025. Iturria: <https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01965792>;
<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/16782/Humanismoaren%20ideia%20Gerra%20Zibilaren%20ostean.pdf?sequence=11>
- Ortiz de Pinedo, A. (2023). "Uztaro eta Beribilez, bi kontakizun ondoz ondo". *Lapurdum*, XXIV, 279-292. <https://shs.hal.science/halshs-04290560> helbidetik eskuratua
- Peña, X. (1970). *Iniciación al estudio del euskera*. Euskerazaleak.
- Pujana, J. J. (1993). *Politeia*. Klasikoak. <https://www.ehu.es/ehg/klasikoak/?f=92> helbidetik eskuratua
- Schiller, F. (2018). *Cartas sobre la educación estética de la humanidad*. Acantilado.
- Sonia, G. (2003). *Ugerra eta kedarra*. Txalaparta.
- Torrealdai, J. M. (2000). *Artaziak: euskal liburuak eta Francoren zensura 1936-1983*.
<https://www.susa-literatura.eus/cgi-bin/liburuak.pl?lib=best08> helbidetik eskuratua

Unzurrunzaga, I. (2002). *Salbatore Mitxelena*. Eusko Jaurlaritza.

Uriarte, J. J. (1987). *Poesia vascongada*. Bizkaiko Foru Aldundia.

Urrutikoetxea, U. (2005). *Auzoak*. Susa.

Wust, P. (1955). *Incertidumbre y riesgo*. Rialp.

Zarate, M. (1979). *Utopiaren fantasian*. Kriseilu.
<https://www.mikelzarate.com/utop.htm> helbidetik eskuratua

Ziarsolo, M. (1975). *Gazi-gazak*. Salostar.